# Goienkaria

Martitzena / 2007ko maiatzaren 22a / **GOIENKARIAren ARGITALPEN BEREZIA**




# PAZKOAK 2007

## Bergarako jaiak

ARGAZKILARIA: OIHANA ELORTZA / AZALA: OXEL ARRIETA

Geyser GASTECH S.A.
San Juan auzoa z/g 151 Posta kodea
BERGARA • 943 76 90 04
**PROFESIONALTASUNA, GAS BEROGAILUEN EKOIZPEGINTZAN**
**1997ko irailean, Bergaran Geyser Gastech Teknologi eta Ekoizpen Zentroa sortu zen. Gure bezero, lankide eta eskualde honetako jende guztia agurtu nahi dugu.**



# BOLU SUKALDEAK





Gremioen koordinazioa

Aurrekontua
konpromiso barik.



Bolu 22. Bergara. Tel./ Faxa: 943 76 27 02
bolusukaldeak@euskalnet.net • www.euskalnet.net/bolusukaldeak

# ELKAR
## ELEKTRAGINTZA

ZURE ZERBITZURA!!

**Mota guztietako instalazioak**




943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.

BERGARA

**Goienkaria**

**Argiraratzailea**
Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea
Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Erredakzioa** Edu Mendibil, Xabier Urtzelai Mirian Biteri, Arantzazu Ezkibel, Amaia Zaldua **Maketazioa** Oxel Arrieta **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Ziortza Martín **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA**
20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE**
20500 Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA**
20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila
Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea**
Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2
Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza**
Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2
Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e:
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 4.900 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia

Bergarako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzien erantzukizunik.



alkatearen agurra

Victoriano Gallastegi

# Eskerrik asko bergarar guztioi

Urtero bezala, batzuetan lehentxoago beste batzuetan gerotxoago, badatoz Mendekoste jaiak. Eta jaiekin batera, dibertitu beharra ere heltzen zaigu bergararroi eta Bergarara hurbiltzen direnei. Bakea eta alaitasuna nahi genuke guztiontzat, salbuespenik gabe, batez ere gurekin ez daudenentzat.

Kezkak uxatzea, umore eta alaitasun osasungarriak izatea, bergarar eta guztion lagun sentitzea eta bereizten gaituzten ezberdintasuna ahaztea izan daitezke ondo pasatzeko errezeta egokiak.

Eskerrak eman nahi dizkiet jai-egitaraua egiten parte hartu dutenei, eta espero dut guztiok gogoko izatea.

Aurten, jaiak bat etorriko dira Udal hauteskundeekin eta nire agurrarekin. Alkatetzan 16 urte eman ondoren, kargua utziko dut. Ilusioz betetako lan biziko urteak izan dira, Bergara modernoagoa lortzeko, zerbitzu gehiagorekin eta bizi-kalitate hobearekin.

Eskerrak eman nahi dizkiet, orobat, lau legealdietan lanean jardun duten zinegotziei, baita Gobernu taldeak osatzeko konfiantza eman diguten eta udalaren kudeaketan parte hartu duten herritarrei eta Udaleko pertsonalari ere, beraien ahalegin eta arduragatik. Eskerrik asko guztioi eta jai zoriontsuak izan ditzazuela!

Hortaz: Eskerrik asko bergarar guztioi!



## AURKIBIDEA

**Egitaraua** > 05-06
**Zapi lehiaketa** > 08
**Kale ikuskizunak** > 09
**Errekortadoreak** > 10
**Camp dantzaldiak** > 13
**Umeendako saioak** > 15
**Plastika sariketa** > 16
**Barrakak** > 18
**Jolas parkea** > 19
**Rock kontzertuak** > 22-23
**Txosna batzordea** > 25-26
**Koadrilen eguna** > 28
**Zapi lehiaketa** > 28
**Dantza txapelketa** > 31
**Skate festa** > 32-33
**Motokrosa** > 35
**Futbolin txapelketa** > 36
**Bandaren saioa** > 38



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutako aldizkaria**

argazki zaharra

# Bigantxak 1971n

Ondokoa 1971. urteko Mendekoste jaietako irudia da. Orduan ere bigantxak izaten ziren jaietan. Garai hartan zezen-plaza egokitzen zuten gaur egungo Ibargarai kalean; Ramon Maria Lili eta eraiki berri dituzten berde koloreko etxebizitzen artean.

**Argazkia:** Bergarako Udal Artxiboa. Roman Larrañaga Fondoa.
**Testua:** Monika Belastegi.
**Urtea:** 1971.



**J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea**

COEG

- **INPLANTEAK** Punta-puntako teknologia
- Aho zirugia
- Ortodontzia
- Odontologia orokorra

**Aseguruak: PADI** (Osakidetza)
LAGUN-ARO
AEGON

*Tel.: 943 76 56 88*
*Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA*

**Ondo ibili Pazkoa jaietan!**






Udaberria - uda
Mirari
JANTZIDENDA
Martoko 34 Bergara 943 76 23 93
Neurriak
38tik 60ra

EGITARAUA

# JAIETAKO EGITARAUA

## Egubakoitza 25

**20:00** Jaien hasiera, etxafuegoak jaurtitzea eta BITORIANATXOREN JAITSIERA, San Martin plazan. Segidan, UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA, hiriguneko kaleetan.



BITORIANATXOREN JAITSIERA.

**20:30** KALEJIRA Txatunga Benbe taldekoekin herriko kaleetan barrena. Iluntzean, Matxiategin BARRAKEN IREKITZEA eta Bideberrin TXOSNEN IREKITZEA.
**22:30** KONTZERTUA Bideberrin Belceblues, Red House eta 12 Tribu musika taldeekin.
**22:30** KALEJIRA eta SU IKUSKIZUNA 0,7 Cabriolas y diablitos taldearekin, San Martin plazatik abiatuta.
**23:30** ERROMERIA, animatzaile eta guzti, San Martin plazan Erdizka Lauetan taldearekin.

## Zapatua 26

**09:00** BIGANTXAK Seminarioko jolas lekuan jarritako zezen plazan.
**09:00** 27.. Haur eta gazteen PLASTIKA-LEHIAKETA, Beart Bergarako Arte elkarteak antolatuta, San Martin plazan. Euria eginez gero, Beartek Bolun duen egoitzan.
**10:00** DIANA Bolutik. Kobok dultzaineroak. Labegaraietatik, Udal Txistulari Banda. Oxirondotik, Iosu eta Iokin soinu-joleak. Dianaren ondoren, herriko plazan elkartuko dira guztiak, eta Mizpirualdera joango dira.
Egun guztian barrena Debako eta Hondarribiko ERRALDOIAK IKUSGAI egongo dira San Martin plazan, kalejira hasi arte.
**11:00** Herriko elkarteen arteko BAKAILAO




BAKAILAO LEHIAKETA ZAPATUAN.

LEHIAKETA San Martin plazan, Lacorren laguntzarekin eta Iosu eta Iokin trikitilariek alaituta.
**11:45** EUSKADIKO OPEN MOTOKROS TXAPELKETA, Arrasate Motozale Elkarteak antolatuta, Eginoko zelaietan (Candy lantegi ondoan). 11:55ean, entrenamenduak hasiko dira; 13:30ean, goizeko lasterketa hasiko da; 16:00etan, arratsaldeko lasterketa hasiko da, eta, 19:30ean, sariak banatuko dituzte.
**13:30** Haur eta gazteen plastika-lehiaketako SARI BANAKETA, San Martin plazan. Euria eginez gero, Beart Bergarako Arte elkartearen egoitzan (Bolu kalea 49).
**16:00** Haur eta gazteendako ZIRKO TAILERRAK, Munibe plazan.
**18:15** Haurrendako BONBA JAPONIARRAK, San Martin plazan.
Gero, Bergarako, Hondarribiko eta Debako erraldoi, kiliki eta buruhandien konpartsaren KALEJIRA, Bergarako Udal Txistulari Bandak eta Kobok Bergarako gaiteroek lagunduta. Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurutzeta kalea, Ramon Maria Lili kalea, Ibargarai hiribidea, Fraiskozuri plaza, Irizar pasealekua, Barrenkalea eta San Martin Agirre plaza.

ibili
1942a ezkero
Aro berriko sukalderako tresneria
San Juan auzoa
BERGARA
Tel.: 943 76 35 44 • Faxa: 943 76 51 39
Web orria: www.ibili.net
Zorionak bergararroi!




KIZKUR
Ile apaindegia • Estetika
Pazkoak zoriontsuak opa dizkizuegu!
Bolu kalea 51, Tel.: 943 76 50 32 BERGARA



## EGITARAUA

**19:00** Gaztetxoendako ZEZENTXOAK eta PONIAK. Seminarioko jolas lekuan jarritako zezen-plazan.
**20:00** Zpeiz MUkaki DANTZARANGAkoek Bergara guztia dantzan jarriko dute! 80. hamarkadako euskal rocka, txaranga at eta aurreskua nola uztartu? Eurak dute adibidea!
**22:30** KONTZERTUA Bideberrin Aby Kem, Circus A.D., Fly Shit eta Rabia positiva taldeekin.
**23:00** DANTZALDIA San Martin plazan, Geiser Band taldearekin.

# Domeka 27

**08:00** ALBORADA Udal Txistulari Bandarekin.
**09:00** BIGANTXAK Seminarioko patioan jarritako zezen plazan.
**10:00** Euskadiko banakako XAKE TXAPELKETA Agorrosingo ekitaldi aretoan.
**10:00** 71. Pentekoste Saria TXIRRINDULARI LASTERKETA, 23 urtez azpiko txirrindularientzat eta elite mailakoentzat, Lokatza Ziklismo Eskolak antolatuta. Lehendakari txapelketarako puntuagarria. Irteera San Lorentzotik.
**11:00** MEZA NAGUSIA San Pedro parrokian. Udal korporazioarekin, eta Udal Musika Bandaren eta Txistulari Bandaren laguntzarekin.
**11:00** SKATE FESTA hasiko da Labegaraietan. 14:00ak arte skate librea egongo da. 14:00etan, bazkaria han bertan egindako parrilladarekin., Giokelaren laguntzaz. 16:00etan, skate txapelketa izango da eta 18:30ean sariak banatuko dituzte. 18:45ean, berriz, bi musika taldek emanaldia egingo dute. Horrekin batera, egun osoan zehar DJak egongo dira.
**11:30** Bike Trial ERAKUSTALDIA Benito Ros munduko txapeldunaren eskutik, San Martin plazan.
**12:30** Udal Musika Bandaren KONTZERTUA Espoloian.
**Egitaraua:**
*Campo de rosas.* (Pasodoblea). M.Gz. Bastida
*Athalia* (Obertura). F. Mendessohn
*Ezpata dantza.* A. Gz. Bastida
*El duo de la africana* (Zarzuelako aukeraketa). M.F. Caballero
*The girls of Jobim.* A.Ch. Jobim
*Bergarako ereserkia.* A.Gz. Chirlaque
Zuzendaria: Alfredo Gz. Chirlaque


BENITO ROS PILOTUA.

**16:00** BTLS 7-Opena, FUTBOLIN eta DARDO TXAPELKETA, Munibe plazan. Euria eginez gero, udaletxeko arkupeetan.
**16:00** XAKE AZKARREKO taldekako partiden txapelketa, Agorrosingo ekitaldi aretoan.
**16:30** Haurrendako TXOTXONGILOAK, Simon Arrieta plazan. Kilima taldearen *Karrakela* ikuskizuna.
**17:00** Profesionalen PILOTA PARTIDUAK Udal pilotalekuan.
**17:30** 30. Euskadiko DANTZA SUELTOKO TXAPELKETA, 16 urtez azpiko bikoteentzat, San Martin plazan, Abarka taldeak antolatuta. Udal Txistulari Bandak eta Trikitilariek lagunduko dute.
**19:00** Bergarako ERREKORTADOREEN IKUSKIZUN mundiala, zezen-plazan: Kulunpioa, quad toreroa, igerilekua...
**22:00** Deabru Beltzak taldearen IKUSKIZUN BERRIA.
**22:30** KONTZERTUA Bideberrin, Default, FBA eta Lord Witch taldeekin.
**23:00** DANTZALDIA Nueva Alasca taldearekin, San Martin plazan.

# Astelehena 28

**09:00** LASTURKO ZEZENAK Seminarioko patioan jarritako zezen-plazan, Elgoibarko dultzaineroek alaituta. Gero, ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA Bergarako errekortadoreen eskutik. 16 urte arteko gazteendako.
**10:30** PLATER TIROA Gorlako Irubiden.
**11:00-15:00** BARRAKAK MERKEAGO egongo dira, euro batekin bi bidaia.
**12:30** EGUERDIKO KONTZERTUA Espoloian, Tarantella taldearekin.
**13:00** KOADRILEN KALEJIRA alaia Incansables txarangarekin plazatik hasita.
**14:30** HERRI BAZKARIA, San Martin plazan. Bazkaria Incansables txarangakoek, eta Xafre eta Zarra trikitilariek alaituko dute. Txartelak salgai daude 10 eurotan Kortazarren eta Pol-Polen.
**17:00** Koadrilen arteko JOKOAK. Gero, MISS ETA MISTER JATOR lehiaketa. Sariak banatuko ditu Bizkaiko Mister den Javier Garcia bergarararrak.
**17:30** BERGARA HIRIA pilota txapelketako finalak Bergarako Udal pilotalekuan.
**19:00** ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA zezen-plazan, Bergarako errekortadoreen eskutik. Goizean ikasitakoa praktikan jartzeko aukera.
**19:30** KALEJIRA Xapre eta Zarra eta Incansables txarangakoekin.
**22:30** KONTZERTUA Bideberrin No Crew, Azkaiter Pelox eta Trikizio taldeekin.
**23:00** ERROMERIA San Martin plazan Ene Bada taldearekin.
**23:00** CAMP DANTZALDIA Tarantella taldearekin, Espoloian.

# Martitzena 29

**09:00** LASTURKO ZEZENAK Seminarioko patioan jarritako zezen plazan, Elgoibarko dultzaineroek lagunduta. Gero, ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA, Bergarako errekortadoreen eskutik. 16 urte artekoendako.
**11:00-14:00** Mentekosteetako kartel-lehiaketara aurkeztutako KARTELAK ERAKUSGAI izango dira, Udaletxeko arkupeetan.
**11:30-13:30** HERRI TRENAREKIN txango turistikoa egiteko aukera. Irteera guztiak Fraiskozuri plazatik egingo dira.
**11:30-13:30** Haurrendako JOLAS-PARKEA Ipintza II-ko patioan. Gaztelu puzgarriak, kars-ak,... izango dira.
**12:30** HERRI-KIROLEN ERAKUSTALDIA San Martin plazan. Gipuzkoako Mari Jose Sardon eta Ernesto Ezpeta *Bihurri*, Nafarroako Ana Berasategi eta Jose Inazio Floresen kontra, San Martin plazan. Lastoa jasotzen, ingudea altxatzen, aizkoran... airtuko dira.
**16:30-18:30** HERRI TRENAREKIN txango turistikoa. Irteera guztiak Fraiskozuri plazatik.
**16:30-18:30** Haurrendako JOLAS PARKEA Ipintza II-ko patioan. Jolas parkea ixterakoan, Incansables txarangaren laguntzarekin, denok Simon Arrieta plazara kalejiran.
**18:45** *Zorionak!* ZIRIKA ZIRKUS taldearen ikuskizuna haurrentzat Simon Arrieta plazan.
**19:00** ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA zezen-plazan Bergarako errekortadoreen eskutik.
**20:15-21:00 eta 22:30-24:00** Tximeleta taldearekin DANTZALDIA San Martin plazan.
**21:30-24:00** EUSKAL KARAOKE ETA DJ FESTA San Martin plazan, Txatxilipurdi taldearekin.
**24:00** BITORIANATXOREN IGOERA eta agurra. Pentekoste jaien amaiera San Martin plazan Incansables txarangaren laguntzarekin.
**24:30-01:00** Tximeleta taldearekin DANTZALDIA San Martin plazan.


KALEKO SALMENTA POSTUAK.

IZAMUR Industrias
CNC mekanizatuak
ECA Empresa Registrada UNE-EN-ISO 9001
Telleria kalea • Pab. B-3 B-4 • 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 18 67 • Faxa: 943 76 53 81
Zorionak guztioi!

DISSOL
Banatzaile ofiziala PRAXAIR
SOLDADURARAKO ARTIKULUAK-GASAK- PISTOLAK ETA OSAGARRIAK- HARIAK- ELEKTRODOAK-MAKINERIA
BERRIZ BILTEGIA
Eitua poligono industriala 41B
48240 BERRIZ (Bizkaia)
Tel.: 946 82 76 06
Faxa: 946 82 65 34
BERGARA BILTEGIA
Benta berri z/g
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 76 28 97
Faxa: 943 76 50 56
ONDO PASAU



TORREKUA
ERRETEGIA

Ibargarai 37
BERGARA

Tel.: 943 76 50 99

Batik bat arraina • Karta • Eguneko menuak • Goizeko 7:00etatik zabalik



OROILORE
Hileta eta Beilatoki zerbitzuak

*Momentu txar horietan sortzen diren galdera, kezka eta arazo guztiei aurre egiteko zuei laguntzeko ireki berria da.*

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Amillaga 27, Bergara
Tel.: 617 44 21 55 - 943 76 94 73 / Faxa: 943 76 94 76
Zerbitzua Debagoiena osorako

**ELKARRIZKETA** USOA MENDIKUTE JARDUNEKO ZAPI LEHIAKETAREN IRABAZLEA

# "Zapiaren irudia egiteko musikan oinarritu naiz"



Aurtengo lepoko zapien marrazkia egin du Usoa Mendikutek. JARDUN

MIRIAN BITERI

**Urtero bezala Jardun euskara elkarteak jaietako lepoko zapia eta marrazkia aukeratzeko lehiaketa deitu du. Usoa Mendikute irabazlearekin hitz egin dugu.**

**Sei urte daramazu Londresen bizitzen. Nola izan zenuen zapi lehiaketaren berri?**

Ahizparen lagun baten bidez. *www.goiena.net* webgunean begiratzeko esan zidan, han oinarriak zeudela. Bestetan, parte hartu izan dut kartel lehiaketan baina ez dut zorterik izan.

**Zapi lehiaketara aurkeztu zara lehenengoz. Zergatik animatu zara oraingo honetan?**

Egiten dudana kanporatzea eta jendeari erakustea gustuko izan dut beti. Orduan, horrelako aukeratan parte hartzen saiatzen naiz beti. Hala ere, nik marraztu baino, margotu egiten dut.

**Pozik egongo zara... Espero al zenuen lehiaketa irabaztea?**

Oso pozik nago, baina baita harrituta ere. Marrazkilari asko eta onak daude herrian eta, hortaz, ez nuen halakorik espero.

Joan zen astean ikusi nituen beste partehartzaileen lanak eta maila ona zegoela iruditu zitzaidan. Horregatik harritu egin nau irabazteak.

**"Marrazkilari asko eta onak daude herrian eta, hortaz, ez nuen espero"**

**"Bergarako musikarekiko zaletasuna adierazi nahi izan dut"**

**Zertan oinarritu zara marrazkia egiterako orduan?**

Musikan. Bergaran musikazale eta musika arloan lan egiten duen jende asko dago. Musika talde asko ere badaude. Hori adierazi gura izan dut marrazkian.

**Euskararekin loturiko mezua ere sartu duzu. Oinarrietako bat al zen?**

Bai. Hala ere, baldintzetan egon ezean, euskararen aldeko leloa ere sartuko nuke, Jardunek antolatzen duelako. Euskara bultzatzeko esaldiren bat sartzea beharrezkotzat jotzen dut.

**Mendekosteetan Bergaran ibiliko zara?**

Ez. Urteak daramatzat egon barik eta pena handia dut.

**Zer da jaietatik gehien gustatzen zaizuna?**

Ekitaldien artean, pintura ageriko lehiaketa dut gustuko. Koadrilen egunean egiten den bazkaria ere ondo dago. Horretaz gain, kanpoan dagoen jende guztia batzeko aukera ona ere badira jaiak.

## Zapi bat, hiru euro

**Zapiak hiru euroren truke eskuratu ahal izango dira plazan kokatuta egongo den postuan eta Pol-Pol, Kortazar, Hamaika, Ariznoa eta Avenida tabernetan. Bestalde, Jardunek pegatinak egin eta debalde banatuko ditu jaietan barrena.**




Zapi lehiaketaren marrazkia. JARDUN

Industriak Azkoin

AENOR
ER
Enpresa Erregistratua
ER-0872/2004
ISO 9001/2004

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu bergarar guztioi!

Amillaga 43, San Lorentzo industria poligonoa. 109 posta kutxa Tel.: 943 76 10 52 Faxa: 943 76 98 20 Bergara

ARATZ

ALBAITARI KLINIKA

Zurradero 6, behea
Tel.: 943 76 70 67 Poltsikokoa: 607 48 71 19

Aratzek jai zoriontsuak opa dizkie bezero guztiei

KALEJIRA

# Zpeiz Mukaki: euskal rocka eta dantzak lotu, eta kalera

Herriko kaleetan
**Zapatuan 20:00etan**
Zpeiz Mukaki dantzarangak euskal dantzak eta rocka uztartuko ditu.

## 1980ko hamarkadako euskal rocka, txaranga bat eta aurreskua uztartzea posible dela frogatu du Iparraldeko taldeak

EDU MENDIBIL

**Pazko-zapatuan jai giroan murgiltzeko aitzakiarik ez da faltako. Zpeiz Mukakik herritar guztiak dantzan jartzeko formula magikoa du; betiko dantzak eta rock kantu ezagunak.**

Zpeiz Mukakik dantza eta txaranga biltzen ditu eta hortik dantzaranga izena. Bergara osoa dantzan jarriko dutela iragarri dute. 1980ko hamarkadako euskal rocka, txaranga bat eta aurreskua uztartzea posible dela frogatu du Iparraldetik datorren taldeak. Iazko apirilean egin zuten estreinaldia, Sarako gaztetxearen 15. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan, eta ordutik 15 emanaldi egin dituzte. Besteak beste, Herri Urrats, Nafarroa Oinez edo Kilometroak jaietan aritu dira giroa alaitzen.

Esan bezala, Ipar Euskal Herritik datozen 15 gaztek osatzen dute Zpeiz Mukaki dantzaranga. Eskusoinua, gitarra elektrikoa, atabala, saxofoia edo bonboaren laguntzaz, Kortatu, La Polla, Ezkixu edo Ange Duhalderen kantuak eskainiko dituzte.

**GAZTETXOENDAKO ESKOLA**

Era berean, euskal dantza tradizionalak berritzen ahalegintzen dira. Horretarako, 1980tik honako musikarekin dantzatzen dute. Lehengo urtean izan ziren McKenzeys eskoziar alaien lekukoa hartuko du Zpeiz Mukakik. Umorea eta jai giroa ez dira faltako zapatu arratsaldean.

**Ipar Euskal Herritik datozen 15 gaztek osatzen dute Zpeiz Mukaki dantzaranga**


Zpeiz Mukakikoak aski ezagunak bilakatu dira iazko apirilean estreinaldia egin zutenetik. GOIENKARIA

iBARRALDE
Administrazio zerbitzuak SM
• Fiskalak
• Laboralak
• Kontableak eta juridikoak
• Finken administrazio zerbitzua
ondo pasa jaiak!
25.068 kolegiatu zenbakia
Ibargarai 30 BERGARA
Tel.: 943 76 52 88 - Faxa: 943 76 25 64




Servimasa
Sukaldeko altzariak eta osagarriak
Haitz-Iturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA
103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO

**ZEZENAK**

# Errekortadoreen eskola izango da Seminarioan

## Errekortadoreen ikuskizuna domekan eta gaztetxoendako eskola astelehen eta martitzenean

Seminarioan
**Astelehena eta martitzena**
Gaztetxoei zuzendutako errekortadoreen eskola jarriko du Zezenzaleak taldeak

EDU MENDIBIL

**Bi urtez jaietan zezen-plaza barik egon ostean, zezen ikuskizunak itzuliko dira Pazkoetan. Errekortadoreen ikuskizuna eta gaztetxoendako eskola izango da Seminarioan.**


Irudikoak bezalako errekortadoreen sekretuak ikasteko aukera izango dute gaztetxoek Seminarioko zezen-plazan. GOIENKARIA

Zezenzaleak taldeak antolatuta, errekortadoreen ikuskizuna domeka arratsaldean izango da, 19:00etan. Unai Arana, Iker Agirre eta Aitor Jaso bergararrekin batera, Blas Cruz, Ander eta Jokin Rodriguez, Bittor Amatriain, Asier Estarriaga eta Felipe Gascon arituko dira txekorren aurrean. Valentziatik eta Zaragozatik ere pare bat errekortadore etorriko dira. Iñigo Almortzak alaituko du ikuskizuna mikrofonoarekin. Berak esan digunez, "jendeak ondo pasatzeko moduko ikuskizuna da, dibertigarria. Iker Agirre, esaterako, *quad* motor batekin aterako da eta beste hainbat sorpresa izango dira. Iaz 22 herritan izan ginen ikuskizunarekin eta aurtengo lehena Bergarakoa izango da. Arrasateko San Juanetan erakutsiko dugu baita".

**Zezenzaleak taldeak antolatuta, errekortadoreen ikuskizuna domeka arratsaldean izango da**

**Gaztetxoei zuzenduta, errekortadoreen eskola ibiltaria izango da Seminarioan**

### GAZTETXOENDAKO ESKOLA

Aurtengo nobedadeetako bat errekortadoreen eskola ibiltaria izango da. Astelehen eta martitzenean, goizez eta arratsaldez, gaztetxoek errekortadoreen sekretuak ikasteko aukera izango dute. Goizean (10:30ak aldera) toreroek erabiltzen duten *karretoiekin* praktikak izango dira herriko errekortadoreen laguntzaz eta arratsaldez, 19:30ean, ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izango da. "Bergarako zezentxoak izango dira erabiliko ditugunak eta gaztetxoen artean zaletasuna piztea da gure helburua", zehazten du Almortzak.

Bestalde, Seminarioko patioan jarriko duten zezen-plazan txekorrak izango dira zapatutik martitzenera, 09:00etan.



Instalakuntza moderno eta guztiz erosoekin, gure bezeroek merezi duten kalitatezko zerbitzua eskainiz.

Ariznoa HOTELA
Telesforo Aranzadi 3
Tel.: 943 761 846 - 943 761 847 Faxa: 943 761 848
20570 BERGARA - Gipuzkoa

ALTUBE tailerrak SM
BVQI ISO 9001 UKAS QUALITY MANAGEMENT 008
ESTANPAZIORAKO PIEZAK ETA TRESNAK MEKANIZATZEA ETA ARTEZTEA
Tel.: 943 76 22 74
Faxa: 943 76 04 99
PAZKOA ZORIONTSUAK!
San Lorentzo poligonoa - Urarte 22
94 posta-kutxa - BERGARA


ADSL + Deiak mugarik gabe goza itzazu
ADSLa
Estatuko deiak
Finkotik poltsikokora deiak
Poltsikokotik finkora deiak
24 orduetan
Proba ezazu, 10 €/ hilean lehenengo 3 hilabeteetan
BERGARA
Domingo Irala 5
Tel.: 943 76 39 79
EIBAR
Zuloagatarren 1
Tel.: 943 20 62 28
ERMUA
Bizkaia etorbidea 10
Tel.: 943 03 00 13
Ondo ibili Pazkoetan!
orange


OLABE
OKINDEGIA-GOZOTEGIA
Pazkoa jai zoriontsuak opa dizkizuegu!
Amillaga 21 Tel.: 943 76 72 28
Matxiategi 4 Tel.: 943 76 57 99
Zurradero 2 Tel.: 943 76 01 26
Simon Arrieta 6 Tel.: 943 76 10 71

Bergara, egin behar dugu



Ondo pasa Pazkoak!

eman botoa
EAJ PNV
www.eaj-pnv.com



Saunier Duval

DICOMAN S.L.

San Lorentzo 21
20570 Bergara
Laguntza teknikorako zerbitzu
ofizial baimendua
Tel.: 943 76 06 61

BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA

DANTZALDIAK

# Tarantella nafar orkestra, Bitorianatxo bezain fidela

**Tarantella talde beteranoaren eskutik camp dantzaldia izango da astelehenean, Espoloian**

Plazan eta Espoloian

**Egubakoitzetik martitzenera**

Dantza egiteko aukera Tarantella edo Nueva Alaska taldeen eskutik

EDU MENDIBIL

**Hurrengo urtean zilarrezko ezteiak beteko ditu Tarantella nafar orkestrak. Bergaran ere aski ezagunak dira, ez baitute Pazkoetan hutsik egiten.**

Napoli aldeko dantza baten izena darama taldeak. 1983an sortutako taldea da eta Jesus Arellano piano joleak hasieratik dihardu: "Ez genuen uste horrenbeste urtez iraungo genuenik baina lana dagoen bitartean eta gustura ibiliz gero... Berbena asuntoak behera egin du pixka bat baina oraindik ere leku askotatik deitzen digute". Azaroan izan ezik, urte osoa ematen dute errepidean, Espainia osoan.

Zazpi kiderekin ekin zioten bere ibilbideari eta gaur egun 12 lagun dira taldean: Maialen Lekunberri, Mireia Falco, Aritz Gonzalez eta Joaquin Fernandez kantariak eta zortzi musiko: Pedro Gorraiz (saxoa), Javier Otin (tronboia), Daniel Sanchez eta Iñigo Remirez (tronpetak), David Burgui (gitarra), Francisco Vilches (baxua), Miguel Angel Mercadel (bateria) eta Jesus bera.

Pieza dantzagarriak (*valsak, pasodobleak, rantxerak*...) eta momentuko kanta arrakastatsuak (Shakira, Bisbal eta beste asko) tartekatzen dituzte emanaldietan. Arellanoren hitzetan, "askotan norberaren gustuko musika alde batera laga eta jendearen eskaeren arabera jo behar duzu. Niri, adibidez, *Paquito el chocolatero* ez zait gustatzen baina gure ibilbide osoan jo dugun kanta da. Dantzarako giro aproposa sortzea da gure nahia. Bergarara gustura joaten gara beti".

**Zilarrezko ezteiak beteko ditu Tarantellak datorren urtean**

**Pieza dantzagarriak eta gaurko arrakastak jotzen dituzte**



Irudian Tarantellak San Martin plazan egindako emanaldia. Bikote ugari jartzen du dantzan taldeak. GOIENKARIA

**BESTE LAU DANTZALDI**

Tarantellak Espoloian joko badu ere, gainerako dantzaldiak San Martin plazan izango dira: egubakoitzean Erdizka Lauetan taldea; zapatuan, Geiser Band; domekan, Nueva Alaskaren txanda izango da; eta azkenik martitzeneko dantzaldia Tximeletak alaituko du.

ROYDE
FITTINGS & BEARINGS

Errodamendu berezien, burdineria eta sistema iristakorren fabrikazioa
Jai zoriontsuak bergararroi!
Royde, S. Koop. •157 posta-kutxa • Amilaga 9 • 20570 BERGARA
Tel.: +34 943 76 16 40 • Faxa: +34 943 76 50 75 • e-maila:rap@royde.com • www. royde.com

LAGUN GARAJEA
Tailer profesionala
Mekanika orokorra
Santalaitz 3. Bergara. Tel.: 943 76 11 20

UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK

K21 KALITATEA 1 Maila





- Arotz lanak orokorrean
- Horma armairuak
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak





**ALTZARI DENDA**
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

**ERAKUSKETA ETA TAILERRA**
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

metagra

*Aurtengo Pazkoetan, jai zoriontsuak opa dizkizuegu herritar guztioi!*

**Amillaga 22 P. K. 79 • 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 13 48 • Faxa: 943 76 50 34**
**e-maila: mse@metagra.com • www.metagra.com**

UMEENDAKO IKUSKIZUNAK

# 'Karrakela' ikuskizunak mezu ekologikoa du baitan

Simon Arrieta Plazan

**Domekan 16:30ean**

Umeei zuzendutako txotxongilo ikuskizuna egingo du Kilima taldeak

## Txotxongilo emanaldian neska-mutikoek Garbiñeren eta haren txaluparen istorioaren berri izango dute

XABIER URTZELAI

**Kilima txotxongilo taldeak *Karrakela* ikuskizuna ekarriko du Bergarara. Ordubeteko emanaldia izango da, eta haurtxoek ikuskizunean bertan hartu ahal izango dute esku.**



Txotxongilo eta aktoreak tartekatzen dira antzezlanean eta ekologiaren aldeko mezua du. GOIENKARIA

Hiru urte daramatza Kilima taldeak txotxongiloekin ikuskizunak egiten. Taldeko kide Pello Azkueren esanetan, Bergaran egingo duten ikuskizuna teknika mistokoa izango da, hau da, txotxongiloak eta aktoreak tartekatuko dituzte.

Hala, Azkue bera izango da teknikari lanetan, eta Inaxio Tolosak eta Clara Gutierrezek egingo dituzte aktore lanak.

#### GARBIÑE ETA TXALUPA

Azkueren esanetan, *Karrakela* ikuskizunak ekologiaren aldeko mezua du, eta Garbiñe izeneko neskatxa baten istorioaz baliatzen dira mezu hori neska-mutikoei helarazteko: "Garbiñeren aitak zuhaitz bat bota eta egur horrekin txalupa bat egingo du. Hasieran, arraunean ibiliko dira, baina oso nekagarria dela ikusita, txalupatxoari bela bat jarriko diote. Bela horrekin, Garbiñe hara eta hona ibiliko da itsasoan barrena, baina orduan, gizakiak egiten dituen gehiegikeriak zuzenean ikusiko ditu: arrain txikiak arrantzatu... Hori gutxi balitz, ekaitz batek txalupa harkaitzetara eraman eta txikitu egingo du. Garbiñek eta aitak, baina, txalupa zatiak topatu eta goitik behera konponduko dute. Konpondu bakarrik ez, motorra ere jarriko diote txalupari, olio birziklatuarekin dabilen motorra".

> **'Karrakela' ikuskizuna teknika mistokoa da, hau da, txotxongiloak eta aktoreak tartekatuko dituztea**

#### MUNDUAN BARRENA

Motordun txaluparekin, Garbiñe Afrikara, Errusiara... munduan barrena ibiliko da: "Urteek aurrera eginda, Garbiñe eta txalupa zahartu egingo dira, eta Garbiñek txalupa hartu eta etxeko baratzera eramango du. Hala, baratzean berriro ere hostoz eta zuhaitzez inguratuko da, bizitzaren zikloa irudikatzen du horrek".

Ikuskizunean zehar, ikusleek behin eta berriro hartuko dute parte kontakizunean: ekaitza irudikatzeko ura mugitzen, adibidez. Horrela, ekitaldian parte hartzeko aukera izanda, gaztetxoek gehiago gozatu ahal izango dute.



PLASTIKA SARIKETA

# Gazteendako sariketak 27 urte egingo ditu aurten

**Horrez gain, ikusgai izango dira, martitzenean, kartel lehiaketara aurkeztutako lanak**

San Martin plaza
**Zapatua 09:00etan**
Sari ematea 13:30ean izango da; San Martin plazan hori ere.

MONIKA BELASTEGI

**Ume eta gazteendako sariketa izaten da eta Beart elkarteak antolatzen du. Urtero ume ugarik hartzen du parte plastika sariketa horretan.**


Irudian iaz parte hartu eta saria jaso zuten neska-mutikoak sari ematearen ondoren. GOIENKARIA

Dagoeneko ohiko bihurtu da Mendekoste jaietako egitarauan haur eta gazteendako plastika sariketa. Kontuan izan, aurten, 27. edizioa beteko duela. Honezkero, herriko ume ugarik hartu izan du parte, urteak joan eta urteak etorri sariketa horretan. Gainera gaztetxo askok hartzen dute parte; ikusi besterik ez dago alboko argazkia –iazko sari ematearen ostean,arituak ageri dira–.

Goizean goiz, 09:00etan hasiko da sariketa, San Martin plazan. Hori bai, eguraldi txarra egingo balu Beart elkarteak Bolu kaleko 49an duen egoitzan izango litzateke. Neska-mutikoek lanak bukatu eta gero, 13:30ean egingo dute sari ematea, San Martin plazako taula gainean hori ere. Adinaren araberako sariketa denez, halaxe egingo dute sari ematea.

**Eguraldi txarra egiten badu Beart elkarteak Bolu kalean duen egoitzan egingo dute sariketa**

**KARTEL ERAKUSKETA**
Martitzenean, hilaren 29an, jarriko dituzte ikusgai jaietako kartel lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa. Udaletxeko arkupeetan jarriko dituzte ikusgai, 11:00etatik 13:00etara. Ia ordu berean, 11:30etik 13:30era, hain justu ere, herri trenarekin txango turistikoak egiteko aukera izango da. Fraiskozuritik abiatuko da.

TORBER
ZORIONAK BERGARAR GUZTIOI!
Azkarruntz auzoa • 190 posta-kutxa • BERGARA (Gipuzkoa) • Tel.: 943 76 12 84 - 943 76 16 46 • Faxa: 943 76 10 41

Cantero Instalaciones
San Miguel 8/10 • 607 78 70 58
• Iturgintza
• Akreditazioa: gas ontziratua
• Wolf galdaren mantentzea
Ondo pasau jaixak!


TELAETXE
Oihalen neurketatik etxean
ipintzera arte dena gure esku
Fabrikako preziotan
• Kortinak
• Kortinoiak
• Estoreak
• Fundak
• Mantelak
• Nordikoak
• Izarak
• Oihalen neguko kolekzio berria ikusgai eta orain
ALFONBRAK
Elgeta bidea, gasolindegitik 300 metrora
• BERGARA•
Tel.: 943 76 39 40 / 41
Astelehenetik larunbatera
10:00etatik 13:00etara
eta
16:00etatik 20:00etara
zabalik


Bergarako Udalak
jai zoriontsuak
opa dizkizue!
BERGARAKO UDALA

BARRAKAK

# "Andaluzian barrakek tradizio handiagoa dute"

**Euskadiko Ferietako Langile Autonomoen Elkarteko idazkari Alberto Dominguezek eman digu lanbide horren berri**

Matxiategin

**Astelehena**
**11:00-15:00**

Astelehenean, hilak 28, merkeago egongo dira barrakak: euro baten truke, bi bidaia

XABIER URTZELAI

**Urtero moduan, aurten ere Matxiategiko aparkalekuan jarriko dituzte barrakak. Egubakoitzean, hilaren 25ean, jarriko dituzte martxan, eta astelehenean prezioak merkatuko dituzte.**

Gaztetxoen gozamenerako, aurten ere 10 barraka inguru jarriko dituzte Matxiategiko aparkalekuan. Udalak aste barruan atera du enkantera barrakak jartzeko lehiaketa, eta dagoeneko Euskadiko Feriante Autonomoen Elkarteak egin du eskaera. Nekez aurkeztuko da beste inor. Hala, elkarteko idazkari Alberto Dominguezek eman dizkigu lanbide horretako xehetasunak: "Okerrena da geroago eta irabazi gutxiago daukagula, barraken mantenua geroago eta garestiago delako, eta Euskadin prezioetan mugak jartzen dizkigutelako".



Barraketan 2 euro kobratzeko, barraka horrek berritasunen bat izan behar du; bestela, prezioa 1,5 eurokoa izango da. GOIENKARIA

Ferianteen elkarteak bat egiten du prezioetan ezin dela gehiegikeriarik egin: "Gu gara lehenak hori defendatzen. Baina, kamioiendako gasoleoa, olioa, mantenurako behar den material dena, seguruak... azken urteotan dena garestitu da asko, eta gure irabaziak murriztu egin dira nabarmen".

**MUGAK HEMEN BAKARRIK**

Hala, Dominguezek onartu digu Euskadin bakarrik izaten dutela prezioek gehienezko muga: "Beste leku batzuetan ez dute horrelakorik jartzen. Andaluzian, adibidez, egun batetik bestera prezioak aldatu egin daitezke. Han, gainera, barrakek tradizio handia dute".

## "Leku gutxi izatea da okerrena"

**Kilometro mordoa egin, jai egunetan lanean ibili, barrakak muntatu, desmuntatu... Alberto Dominguezendako, baina, badago hori baino okerragorik: "Txarrena izaten da leku batera iritsi eta barraka edo karabana jartzeko leku gutxirekin ibiltzea. Gainera, hasieran ur edo argi barik egoten gara hainbat orduz; erosotasun falta hori izaten da, niretako, gure laneko gauza txarrena.**

**Horrekin batera, Dominguezek azpimarratu digu mantenu lanetan ezin dutela hutsegiterik egin: "Publizitate oso txarra da jaietan zerbait apurtu delako barraka itxita izatea".**

EL CARMEN
GARBIKETA ZERBITZUAK

Lantegien garbiketa eta mantenimendua
Banketxe, Ikastetxe eta Bulego Kontserbazioak
Moketa garbiketak
Garajeen garbiketa eta mantenimendua

jai zoriontsuak izan ditzazuela!

Zubieta 28 - Tel.: 943 76 73 39 • 20570 BERGARA - Mug.: 609 16 33 23 / 629 75 00 30

Zumelaga
JATETXEA

Jai zoriontsuak izan ditzazuela denok!

San Antonio 5 BERGARA 943 76 20 21

65 urte zuen zerbitzura!

JOLAS-PARKEA

# Kart autoak izaten dira jolas-parkeko izarrak

Ipintza IIko patioan
**Martitzena**
**11:30 eta 16:30**
Haurrendako jolas-parkea jarriko dute goiz eta arratsaldez jostatzeko

## Kart autoekin batera, izarretako pultsua, era askotako puzgarriak eta bestelako jolasak egongo dira Ipintzako patioan

XABIER URTZELAI

**Martitzenean egingo dute Umeen Eguna; gaztetxoenendako antolatu dituzten ekitaldi guztiekin batera, neska-mutikoek Ipintzako patioan jolas mordoa izango dituzte.**

Jolas-parke batek izan ditzakeen osagarri guztiak izango ditu Umeen Egunean, goiz eta arratsalde, Ipintzako patioan jarriko duten parkeak. Joseba Urangak eman dizkigu xehetasun gehiago: "Gasolinazko motorrekin dabiltzan kart-ak jarriko ditugu, eta baita izarretako pultsua eta hainbat puzgarri ere".

Izarretako pultsua izeneko barraka *goming* moduko bat da. Jolas horretan, neska-mutikoek arnes batekin lotuta jauzi handiak egin ahal dituzte: "Gaztetxoei atentzioa deitzen die horrek, eta gustura ibiltzen dira. Sei urtetik beherakoak ezin dira hor ibili, arnesak ondo heltzeko gorputz txikiegia izaten dutelako".

**KART-AK, IZAR**

Kart autoak dira arrakasta handien izaten duten jolasak: "Mutilen artean, batez ere. Gasolinazko motorra dute, eta abiadura dezente hartzeko gauza badira ere, zirkuituak motel ibiltzeko prestatzen ditugu, kurba askorekin. Horrekin batera, begiraleak egoten dira uneoro gazteak zaintzen. Azken batean, jolas hori gazteek gozatzeko ekartzen dugu, ez lasterketak egiteko", esan digu Urangak.

**"Kart-ek abiadura har dezakete, baina zirkuitua motel ibiltzeko prestatzen dugu"**



Ipintza IIko patioan egokitzen dute kart-endako zirkuitua. GOIENKARIA

López Ojeda
Amillaga 25 • Industrialdea
Biltegia: 943 762 776 - 943 763 852
20.570 BERGARA (Gipuzkoa)
Covila
Errioxako ardo beltza, urtekoa
Señorio de Ojeda
Errioxa
Castillo de Ojeda
Nafarroa
Jai Zoriontsuak opa dizkizue!
ATXEGA ARDOAK S.L.

San Miguel
DEKORAZIOA ETA ISOLAMENDUA
Norberaren babeserako ekipamenduak
eta lanerako arropak
Zeramika erakusketa eta salmenta
Zapatu goizetan irekita
Isover
USG
MAPEI
blanke
HANDYHEAT
Asfaltex
Styrodur
eurocoustic
OWA-SONEBEL
arena
ROCLAINE
ondo pasa jaietan!

Amillaga 5-6 pabilioilla - BERGARA Tel.: 943 76 47 90 - faxa: 943 76 01 15 Zentralita: 649 98 16 70


ONDO PAS


U JAIXAK!
agorrosin
ariznoa
avenida
azpeitxi
biko
depor
etxagi
euxebio II
hamaika…
irish pub galways
irrintzi
kaixo
oilagorra
tartufo
usoa
zuhaizti
zunbeltz

BIDEBERRIKO KONTZERTUAK

# Gureko talde ugari Bideberriko kontzertuetan

Bideberrin

**Zapatutik astelehenera**

Bideberrin, txosna gunean izango dira kontzertuak, 22:30etik aurrera

**Egubakoitzean hasi eta astelehenera bitartean, hamahiru talde igaroko dira Bideberriko txosna guneko eskenatokitik. Horietako zortzi Debagoienekoak dira: Bergarako zazpi eta Arrasateko bat**

## 25 egubakoitza

Jaietako lehenengo egunean, egubakoitzean hasiko dira baita ere, Bideberriko rock kontzertuak. Lehenengo egun horretan blues eta reggae doinuak nagusituko dira Belceblues, Red House eta 12 Tribu taldeekin.

Belceblues Bergarako taldearen blues oinarriko kantuak entzuteko aukera izango da barikuan. 2005ean ekin zioten bideari eta honezkero kontzertu ugari eman dute. Danbaka musika lehiaketan finalera iritsitako taldeetako bat da. Bluesean oinarrituta, soinu indartsuagoak eta ahotsa lantzen dute. Zuzenekoetan, abesti propioak zein gustuko dituzten blues kantu ezagunen bertsioak egiten dituzte.

### RED HOUSE ETA 12 TRIBU

Jeff Espinoza estatubatuarraren eta Francisco Simon madrildarraren urteetako esperientzia eta laguntasunaren emaitza da Red House. Blues eta rhythm and blues doinuak gidari dituztela, zuzeneko indartsu eta dotorea da Red Housena. Adituen esanetan, Europako blues talderik onenetarikoa da.

12 Triburekin reggae doinuek hartuko dute Bideberriko txosna gunea. Erritmo-patroi jakin batzuen arabera landutako konposizioak egiten dituzte eta iraganeko eta gaur egungo reggaean sustraitutako moldaketa ageri dute.



Belceblues bergarararrak Elgetako Espaloian. GOIENKARIA

## 26 zapatua

Hardcore eta metal gaua izango da zapatukoa. Lau taldek hartuko dute parte: Aby-Kem, Circus A.D., Fly Shit eta Rabia Positiva taldeek, hain justu ere.

Ibilbide oso luzea ez badu ere –2004an sortu zen– Aby-Kem talde bergararrak estilo propioa garatzen jakin du eta sariak eskuratzen ere hasita daude, dagoeneko: Danbaka lehiaketaren bigarren edizioko irabazleak izan dira. Emanaldi indartsu eta gogotsua ziurtatuta dago.

Circus A.D. taldea madrilen sortu zen 1998an. Contradiction izenarekin sortu zen, eta 80. hamarkadako soinu afterpunkak egiteko asmoarekin. 2002an Circus izena jarri eta soinu pertsonalagoetarako bilakaerari ekin zion. Besteak beste Villa de Madrid lehiaketan finalista izan ziren 2003an. Iaz, *Laberinto* izeneko diskoa kaleratu zuten.

Fly Shit bergararren hardcorea ere entzungo dugu Bideberrin. Besteak beste *Bizitza... baina nola bizi?* taldearen bigarren laneko kantuak entzuteko aukera egongo da.


Aby-Kem bergararrak, Danbaka lehiaketako irabazleak. GOIENKARIA

### RABIA POSITIVA

Bartzelona aldeko Rabia Positiva ere Bergaran izango da Bideberriko txosna gunean. Kataluniarrek euren hardcore erabat konprometitua ekarriko dute.

FILBER
Talleres FILBER S.L.
Ondo pasau Pazkoetan!
DQ certificación
ER-0636/2002
Amillaga 14 - 71 P.K. • Tel.: 943 76 17 45 • Faxa: 943 76 97 46



Jai zoriontsuak guztioi!
orraski
Ile apaindegia
Iparragirre kalea 8 • Tel.: 943 76 47 01
BERGARA

# 27 domeka


Lord Wichek domekan egingo du kontzertua. IMANOL SORIANO


Unai Azkarate bergararra Azkaiter Pelox bihurtzen da taula gainean. GOIENKARIA

Heavy gaua izango da domekakoa. Hiru taldek jardungo dute Bideberrin: Default, FBA eta Lord Witch taldeek, hain zuzen ere.

Default taldeak Arrasateko heavy-rocka erakutsiko du Bideberriko txosna gunean. Taldea 2000. urtean hasi zen; ordutik hainbat kontzertu egin dituzte, estatuan barrena eta baita ibarrean ere.

**BERGARAKO BI**

Debagoieneko taldeen gaua izango da domekakoa. Izan ere, Arrasateko Defaultekoekin batera, Bergarako FBA eta Lord Wich taldeek osatzen dute egitaraua. FBAk 2006ko ekainean ekin zion ibilbideari; Bideberrikoa taldearen hirugarren kontzertua izango da.

Lord Wichen kasuan, 2004ko udan sortu zen –Dragon Fly talde bergararra desagertu ostean–. Hala, taldeko bi kidek –Iker, bateria eta Euge, gitarra– proiektu berri bati ekitea erabaki zuten. Jorge (ahotsa eta gitarra), Dani (baxua) eta Fernan (teklatua) lotu zitzaizkien gutxira –Eibar eta Ermukoak dira– eta gaur egungo bideari ekin zion Lord Witchek. Heavy metal eta power metal nahasketa egiten du taldeak eta Stratovarius, Judast Priest eta Gamma Ray bezalako taldeen eragina dute.


Default taldeak Arrasateko heavy-rocka eroango du Bergarara. IMANOL SORIANO

# 28 astelehena

Astelehenean izango dira Bideberriko azkeneko kontzertuak. Beste hiru taldek hartuko dute parte: No Crew, Azkaiter Pelox eta Trikizio taldeek, hain justu ere.

No Crew Zumarragako taldearen rap doinu gogor eta konprometituak entzuteko aukera egongo da batetik, astelehenean. Taula gainean hiru abeslari eta tekla-jolea ikusteko aukera egongo da.

Azkaiter Peloxek –Unai Azkarate bergararra– urteak daramatza musika egiten, baina 2004ko maiatzean hartu zuen Azkaiter Peloxen bidea. Rocka da haren musikaren oinarria, eta, oro har, eguneroko bizitzan gertatzen zaizkigun bitxikerien gainean egiten du gogoeta abestietan.

**DANTZARAKO DOINUAK**

Trikizio erromeria taldeak ere hartuko du parte Bideberriko kontzertuetan. Euskal abesti tradizionalak, egungoak, rockaren historiakoak... askotarikoak egiten ditu erromeria talde horrek.

Hori horrela, festa giroa nahi izanez gero, ez galdu aukera eta hurbildu astelehenean Bideberrira.

Bestalde, Trikizio kaleratzear da estreinako diskoa: Katalunia eta Euskal Herria uztartuko ditu, bi herrialdeetako abestien bertsioak eginez. gainera, diskoak kolaborazio ezagun mordoa izango ditu.

Argi dago, astelehenekoproposamena zabala eta askotarikoa izango dela.


Trikizio taldea. GOIENKARIA



Silvana Caviglia doktorea
**Simon Arrieta plaza 3, 2. Tel.: 943 76 38 54 BERGARA**
PADI
ASEGURUAK
·Sermesa Pakea Grupo Eroski
·Ibersalud Globalcard Aegon Asepeyo
·Mapfre ·Fremap ·Ocaso
·Azkaran ·Previsora
**Jai zoriontsuak denoi!**

Zuri beltz Margoak
**Barnealde eta kanpoaldeen erreforma**
**Pintura zerbitzu osoa**
Zubieta 28 BERGARA • 607 447 494
Txomin Santamaria 609 150 164 • Jabier Seco 678 615 045
Ondo pasau jaixetan!

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK SM

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua
Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta-kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

Ondo pasau jaiak!

Montajes Eléctricos
GURELAN S.L.
Mantenimendu eta instalazio industrialak:
• Makinariaren berriztatzea.
• Automaten programazioa.
• etab...

Jai zoriontsuak!

Amillaga, 5 20570 Bergara
Tel.: 943760700 Faxa: 943765623

TXOSNA BATZORDEA

# Txosna batzordeak mahonezko blusarekin ospatuko ditu jaiak

## Herritarrek herritarrendako antolatutako jaien aldeko apustua egin dute eta Udalak jartzen dizkien trabak salatzen dituzte

AMAIA ZALDUA

**Txosna batzordea sortu zela hogei urte inguru dira jada, eta euren esanetan, Udalak geroz eta laguntza gutxiago eskaintzen dizkie jaiak antolatzeko. Hala ere, Bergarako kaleak jai giroaz beteko dituen egitaraua prestatu dute aurtengoan ere.**


Bideberrin ohiko karpa eta otartekoendako beste txosna bat egongo dira. San Martin plazan ere jarriko dute beste txosna bat. GOIENKARIA

Txosna batzordea duela hogei urte inguru sortu zen jaieredu desberdin bat bultzatzeko asmoz. Aurten, honako taldeek osatzen dute: IA, Segi, Batasuna, Askatasuna, EHBE, EHE, Bai Euskal Herriari, AEK eta Truku-zikin taldeek.

**Truku-zikin taldeak aniztasuna ekarri die Txosna batzordeari eta jai-egitarauari**

**Txosna batzordeak dio jaiak herritik herriarentzat izan behar dutela**

**BATZORDEKO KIDEAK**

Truku-zikin txosna batzordean sartu berri den taldea da. Batzordearen ustez, talde honek aniztasuna ekarri dio batzordeari eta proiektu interesgarriak ditu, gainera. Egitarauari, adibidez, *Hip-hop* musika, eta *skate*-a gehitu zaizkio.

**HELBURUAK**

Txosna batzordearen helburuetako bat jai parte hartzaileak bultzatzea da, hau da, festak herritarrek herritarrentzat antolatzea.

Beste helburuetako bat, batzordea osatzen duten talde guztien aldarrikapenak kaleratzea da.

Batzordeko kideek argi dute, osatzen duten taldeen aldarrikapenak ere egingo dituztela, adibidez, AHTren aurkakoak, eta euskalduntasunaren eta parekidetasunaren aldekoak.

Azkenik, deia luzatzen diete herritarrei mahonezko blusak jantzi eta jaietan parte hartzeko. Blusak salgai izango dira tabernetan eta kalean.

**UDALAREN JARRERA**

Txosna batzordeak adierazi duenez, urtero izaten dituzte arazoak Udalarekin jaiak desberdin interpretatzen dituztelako. Batzordeak dio, Udalak jai elitistak bultzatzen ditduela eta salatzen du enpresa pribatuak kontratatzea.

Jaiak antolatzeko orduan, urtetik urtera, Udaletik geroz eta diru gutxiago jasotzen dutela azaldu dute eta horrek egitaraua asko mugatzen duela gehitu dute.

Hala eta guztiz ere, Txosna batzordeak argi dauka Udalarekin batera festak antolatzeko prest dagoela. Hori bai, edukiak dituzten jaiak nahi dituzte eta euskal giroa bultzatuko dutenak.



ZABALA
JATETXEA • OSTATUA
Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57
78 urte zuekin!
Jai zoriontsuak herritar guztioi!

ZubeR ®
BVQI ISO 9001 UKAS QUALITY MANAGEMENT 008
**Zuber**
• Metal gogorrezko herramintak ZB®
• Hotzeko estanpaziorako metal gogorrezko matrizeak®
Tel.: + 34 943 76 26 78
Faxa: + 34 943 76 56 79
www.adegi.es/zuber
Leizeaga kalea 8
112 posta-kutxa
BERGARA
*Jai zoriontsuak bergararroi!*

TXOSNA BATZORDEA

# Txosna batzordeak egitarau zabala prestatu du

**Urtero bezala, Udalaren egitarauaz gain, Txosna batzordearen egitaraua ere izango da Bergarako herritarrei eskaintza zabalagoa eskaintzeko**



Aurreko urteetan presoen aldeko bazkaria egin badute ere, aurten afaria egingo dute, egubakoitzean, Munibe plazan. GOIENKARIA

AMAIA ZALDUA

**Aurtengo egitarauak ere festa giroa bultzatuko du: musika, jolasak, otorduak, ikuskizunak eta kalejirak izango dira**

Txosna batzordearen egitarauan berrikuntzak izan dira taldean sartu berri den Truku-zikin taldeari esker.

Aurtengoan hip-hop musika, bizikleta eta skatea ere izango dira. Bestalde, presoen aldeko afarira joateko eta Kuadrila egunean parte hartzeko dei berezia egiten du batzordeak.

**TXOSNA GUNEA**

Txosna gunea Bideberrin izango da, eta bi txosna izango dira: batetik, urtero egoten den karpa; eta bestetik, ogitartekoentzako txosna. Aurten, ordea, ogitartekoez gain, eskaintza zabalago bat egitea pentsatu dute batzordeko kideek.

Hirugarren txosna San Martin plazan egongo da.

**Hip-hop musika, *skate*-a eta bizikleta izango dira aurtengoan**

**KONTZERTUAK**

Kontzertuen artean, bergararrak entzuteko aukera izango da. Batetik, Azkaiter Pelox izango da; euskaraz eginiko rock-a egiten du. Bestetik, Emon talde berria, folka, rocka, reggaea eta ska musika nahasten dituena.

Horiez gain, Trikizio, No crew eta Dj Bull ere izango dira giroa alaitzeko.

## Txosna batzordeak herritar guztiei begira dagoen egitarau alternatiboa antolatu du

**EGUBAKOITZA**

**20:00**etan Bitorianatxoren jaitsiera izango da San Martin plazan.

Bitorianatxo jaitsi eta gero, kalejira egingo dute txosna gunerantz, eta han, txosnen irekiera ekitaldia egingo dute.

**21:30**ean presoen aldeko afari herrikoia Munibe plazan, eta txaranga-kalejira ibiliko da gero kalean zehar. Afarirako txartelak ohiko lekuetan izango dira salgai.

**ZAPATUA**

Txosna Batzordeak antolatu ez arren, Udalak antolatutako kontzertuak izango dira txosna gunean. Gaueko 22:30etik aurrera, Aby Kem, Circus A.D., Fly Shit eta Rabia taldeen kontzertuekin gozatzeko aukera egongo da.

**DOMEKA**

**19:00**etan bizikleta eta skate poteo aldarrikatzailea hasiko da txosnetan.

**ASTELEHENA**

Batzordeak, urtero egiten den herri-bazkarira joateko deia luzatzen die herritar guztiei.

Gauean, **22:00**etatik aurrera, No Crew (hip-hop taldea), Trikizio (erromeria), Azkaiter Pelox eta Emon taldeak izango dira Bideberrin.

Kontzertuak amaitu ostean, jolasak egongo dira, eta azkenik, Dj Bull.

Garaje Murillo
Auto konponketak orokorrean
Zorionak bergarar guztioi!
EUROTALLER SERVICIO
Leizeaga, 4 • 20570 BERGARA (Gipuzkoa) • Tel.: 943 76 13 84



PAZKOA
JAI ZORIONTSUAK!
JOXAN
ARRAINDEGIA
Orain Super Amaran ere baiç!
Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

Ondo ibili Pazkoetan!

UDAL EUSKALTEGIAK

BERGARAKO
UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi 13 • BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
berg.euskudal@euskalnet.net



*Eraman dotoretasuna zure etxera*

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1 OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

KOADRILEN EGUNA

# Atsedenerako astirik ez dute izango koadrilek

**Goiz nahiz arratsaldean kalejira, herri bazkaria, koadrilen arteko jokoak eta Miss eta Mister Jator lehiaketa izango dira**

San Martin plazan

**Astelehenean egun osoz**

Musika, gastronomia eta kiroletako ekintzak nagusituko dira Koadrilen Egunean

MIRIAN BITERI

**Koadrilen egunean sekulako giroa dago. Kalejirek musikaz eta kolorez jantziko dituzte kaleak. Herri bazkariak, berriz, plaza beteko du, baita koadrilen arteko jokoek eta Miss eta Mister Jator lehiaketak ere.**


Miss eta Mister Jator lehiaketa bigarrenez egingo dute aurten. Irudian iazko irabazleak. GOIENKARIA

Astelehenari goiz ekingo zaio Bergaran. Koadrilak dira egun horretako protagonista nagusiak. Atsedenerako denbora larregirik ez dute izango.

Lasturko zezenekin hasiko da dena. Seminarioko patioan ezarritako zezen-plazan izango da hori. Elgoibarko dultzaineroak ekimena girotzeaz arduratuko dira. Ondoren, Errekortadore Eskola Ibiltariaren txanda iritsiko da, 16 urte arteko gazteentzat.

Koadrilak kalejiran irtengo dira plazatik 13:00etan. Kolorez eta alaitasunez beteko dituzte herriko kale eta tabernak. Incansables txaranga izango dute ondoan ibilbide osoan zehar.

Kaleak girotu ostean, herri bazkariaren ordua iritsiko da, San Martin plazan bertan. Txartelak salgai daude Pol-Pol eta Kortazar tabernetan 10 euroren truke. Primeran pasatu gura duenak ezin du bazkaria galdu. Aurten, 400 pertsonendako tokia dago.

**JOKOAK, ARRATSALDEAN**

Indarrak berreskuratu ostean, 17:00ak aldera koadrilen arteko jokoak hasiko dira. Goizean ez dira egongo. Beraz, arratsalderako antolatu direnak arrakastatsuak izango direla uste dute antolatzaileek. Gura duten guztiei irekiak dira.

Gero, herritarren gustuko den lehiaketa etorriko da. Miss eta Mister Jator, hain zuzen ere. Norberaren trebetasunak erakutsi eta lotsa kentzeko toki egokiena da hori. Iaz bainujantzi eta guzti desfilatu behar izan zuten parte hartzaileek. Bizkaiko Mister Javier Garcia bergarararren aholkuak jasotzeko aukera izango dute, sariak banatzen egongo da-eta bera.

Horrekin guztiarekin batera, goizean errekortadoreen eskutik ikasitakoa praktikan ere jarri ahal izango da arratsaldean. Gainera, 19:30etan, Xapre eta Zarra trikitilari eta txarangarekin batera kalejira itzuliko da eta, nola ez, berriz ere dantzarako aukera.

## Bazkarirako 400 txartel daude salgai, iaz baino 50 gehiago

**Koadrilen egunaren barruan ekimen garrantzitsuenetarikoa herri bazkaria da. Urtez urte indartzen ari den ekitaldia da hori. Kalejirarekin kaleak girotu ondoren, indarrak berreskuratzeko astia iritsiko da. Aurten, 400 pertsonendako bazkaria prestatuko dute. Iaz 350 txartel atera zituzten antolatzaileek eta guztiak agortu ziren. Arrakastaz jabetuta, 50 lagun gehiagorendako lekua egongo da aurten.**

**Txartelak Pol-Pol eta Kortazar tabernetan eskura daitezke. Dagoeneko salgai daude eta ohikoa den moduan, jaietako zapatura arte erosi ahal izango dira. 10 euro balio du bakoitzak. Animatzen denak pasta entsalada, oilasko errea eta azkenik, tarta izango du egun horretan bazkaltzeko.**

**Koadrilen arteko jokoen ondotik, bestalde, Miss eta Mister Jator lehiaketa egingo da. Sari ederra jasoko dute irabazleek. Gainera, aurten, Bizkaiko Mister Javier Garcia bergarararra egongo da lehiaketaren sariak banatzen.**

Etxebizitzen, etxabeheen eta garajeen eraikuntza
ORTUIBAR SM
PROMOZIOAK
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!
Ibargarai 18 BERGARA 943 76 11 18

EVSKO S.A.
Jai zoriontsuak!
Makina-erremintako laguntzailea • Doitasunezko multzoak
Amillaga 7 · 147 pk · 943 76 21 41 / 76 46 05 · Bergara



Jean Louis David ile apaindegiaren izenean
jai zoriontsuak bergarar guztioi!

# Jean Louis David

## AUSART ZAITEZ!

**TRADITION**
Ibargarai 43 • 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 22 48

**DIFFUSION**
**QUICK SERVICE**
Magdalena 16 • 01008 GASTEIZ • Tel.: 945 13 47 26

**DIFFUSION**
Garbera Merkataritza etxea 23 aretoa
20017 DONOSTIA • Tel.: 943 39 45 86

**DIFFUSION**
Urbil Merkataritza etxea B7 aretoa.
20170 USURBIL • Tel.: 943 36 08 17

**DIFFUSION**
Lakua Merkataritza etxea 05 aretoa
01010 GASTEIZ • Tel.: 945 17 91 50

**BULEGO ZENTRALA**
**TRANING CENTER**
Gasteiz Etorbidea 84
01012 GASTEIZ • Tel.: 945 21 42 38

Jean Louis David-ek L'ORÉAL PROFESSIONNEL
produktuak erabiltzen ditu

ELUSU ERAIKUNTZAK

- Era guztietako eraikuntzak
- Erreformak
  - Teilatuak
  - Sukaldeak
  - Bainuak
  - Fatxadak




**Baserri eta jauretxeen**
erreformetan
**eta txaleten eraikuntzan**
espezializatuta gaude

**Ondo ibili Pazkoetan!**

**Arruriaga 5**
**943 76 45 50 Faxa: 943 76 51 45**

ausartu hadi
Bergara aldatzen

Bozkatu aralar

jai zoriontsuak




www.aralar.net





•Gosariak
•Bokatak
•Egunkariak
•Bertako opilak
•Kafetegia
•Terraza

EGUNERO 06:00etatik AURRERA ZABALIK

ONDO PASAU JAIXAK!

Laster Arrizubiaga parkea 1en (Bergara)

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

**Obradorea:**
Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

DANTZA SOLTEKO TXAPELKETA

# Abarkak iazko txapelketan ikusitako maila espero du

San Martin plazan
**Domekan 17:30ean**
Hamalau bikote arituko dira fandangoak eta arin-arinak dantzatzen.

## Parte hartzeko izena eman duten 14 bikoteen artean ez dago bergararrik

MIRIAN BITERI

**Euskadiko 30. dantza solteko txapelketa izango da aurten ere Mendekotesko jaietan. Saioa domeka arratsaldean izango da. Iaz ere horrela izan zen eta aldaketarekin pozik azaldu da Abarka dantza taldea.**


Iazko txapelketaren maila "oso ona" izan zela gogoratu du Abarka Dantza Taldeak. GOIENKARIA

Lehen, goizez eta arratsaldez izaten zen dantza solteko txapelketa. Iaz, ordea, arratsaldera mugatzea "derrigorrezkoa" zela ikusi zuen saioaren antolatzailea den Abarka Dantza Taldeak. Izan ere, 15 bikote baino gehiago apuntatuz gero, "luzeegia eta azkenean aspergarria" izan daitekeela dio.

Era berean, dantzarientzako ere "erosoagoa" dela aipatu dute antolatzaileek. Gainera, jaunartzeak ere izaten dira egun horretan eta goizeko saioak arazoak sortzen zituela azaldu dute.

Partaidetza aldetik, azken urteetako kopurua mantendu egingo dela jakinarazi dute Abarkakoek. Normalean, 12 eta 16 bikote artean aritzen dira txapelketan eta aurten ere horrela izango da. Guztira, 14 bikotek eman dute izena. Bergararrik ez dago.

Iazko txapelketaren maila "oso ona" izan zela gogoratu dute antolatzaileek. Horren harira, aurten ere antzekoa izatea espero dute.

**ADINA, BAXUAGOA**

Dantzarien batezbesteko adina, bestalde, baxuagoa izango da, bikote asko nagusien mailara pasa direlako.

Lehiaketa 17:30ean hasiko da. Bikoteek fandangoa dantzatu beharko dute, herriko udal txistularien laguntzaz. Arin-Arinarekin duten trebezia ere erakutsiko dute, trikitilarien laguntzaz.

Ohikoa den moduan, Euskal Herriko jantziekin apainduta azaldu beharko dira dantzariak. Jantzi egokiena saritua izango da aurten ere.

Lehenengo bostek saria izango dute. Udalak emandako garaikurra jasoko dute bostek. Horretaz gain, bikote irabazleak txapela, zapia eta 180 euro jasoko ditu. Bigarren sailkatuak 160 euro lortuko ditu. Hirugarrenak 150, laugarrenak 140 eta azkenak 130 euro poltsikoratuko ditu. Bestalde, sari berezia jasoko du, baita ere, 12 urtetik beherakoen artean lehen sailkatzen den bikoteak. Baita bikote gazteenak ere.

### Txapelketan parte hartuko duten dantzarien zerrenda

**Iker Sanz - Idoia Besaga / Pasaia - Lezo**
**Igor Garmendia - Nagore Gandarias/ Lazkao**
**Imanol Gonzalez - Garaitz Belez / Lazkao**
**Nagore Larrañaga - Iñigo Larrañaga / Azpeitia**
**Jon Aranguren - Ainhoa Bereziartua / Azpeitia**
**Aitor Exposito - Alaia Amubieta / Azpeitia**
**Asier Ibarguren - Garráis Gurrutxaga / Azpeitia**
**Maialen Aldalur - Amets Amubieta / Azpeitia**
**Alex Uria - Naroa Uria / Azpeitia**
**Mikel Subinas - Miren Ibarzabal / Azpeitia**
**Xanti Agirrezabala - Ana Gurrutxaga / Azpeitia**
**Josefa Maiz - Ainhoa Maiz / Azpeitia**
**Mikel Otegi - Estela Atorrasagasti / Donostia-Orio**
**Julen Alonso - Intza Unanua / Orio**

HORKONPON
oinetako konponketa
Albertok jai zoriontsuak opa dizkizuete!

kremailerak
poltsen konponketa
tindatzea
krisketak
Bidekurutzeta 28
943 76 04 07

Fruteria Cruz Hnos Fruitategia
Jai zoriontsuak bergararroi!
Ibargarai 11 • tel.: 943 76 28 92
Barrenkale 19 • tel.: 943 76 70 03

SKATE FESTA

Labegaraietan

**Domekan egun osoan**

Goizean skate librea egiteko aukera dago eta arratsaldean, txapelketa izango da

# Skate festa izango da lehenengoz, Labegaraietan

## Mendekoste jaietako domekan izango da, Labegaraietako kirol gunean; skate modalitatea ezagutzeko aukera izango dute bertara joango direnek, gainera, Giokelako okela dastatzeko aukera egongo da

ARANTZAZU EZKIBEL

**Skatea kirola da, gurean, oraindik, ezaguna izan ez arren. Mendekoste jaietan antolatutako festarekin, jendea skate mundura hurbiltzea lortu gura dute antolatzaileek.**

Aurtengo Mendekoste jaiek berritasun bat, behintzat, izango dute; bada, Bergaran lehenengoz skate festa antolatu dute. Mendekoste jaietako domekan izango da, Labegaraietako kirol gunean

Jaiaren helburua da skatea ezagutzen ez dutenek kirol hau ezagutzeko aukera izatea. "Skatearen inguruan festa giroa sortzea da helburua, eta,bide batez, kirol honetan ari garen lagunok elkar ezagutzeko ere balioko digu", esan du antolatzailea den Joxe Mari Larrañagak.



Gero eta skatezale gehiago daude gurean. Irudian, Arrasaten jokatutako proba bateko irudia. JOXE MARI LARRAÑAGA

**SKATE LIBREA**

Goizeko 11:00etan emango diote hasiera skate festari. 11:00etan hasi eta 14:00ak arte, skate librea egiteko aukera egongo da Labegaraietako instalazioetan. Hara, gura duten herritar denak joan ahal izango dira; skatea gustuko dutenak eta skatea zer den jakin gura duten guztiak. Gainera, arratsaldean jokatuko den txapelketarako berotze ariketak egiteko ere balioko du goizeko tarte horrek. Labegaraietako kiroldegi aldamenean dauden moduloetan egongo da aukera skate librea egiteko.

Kirola egin eta gero, zer hobe tripa betetzea baino? Hala, goizeko kirol saioaren ondoren, parrillada egongo da Giokelakoen eskutik. Labegaraietan izango da; eta, bertara joandako guztiek izango dute aukera Giokelakoek prestaturiko okela dastatzeko.

"Labegaraietako skate gunera joango diren denek izango dute okela jateko aukera, denontzat antolatutako festa da; gainera, parrillada doakoa izango da", adierazi du Joxe Mari Larrañaga antolatzaileak.

Beraz, aukera polita eskaintzen du Bergarako Gurpildun Oholak Skate Elkarteak jaietako domekarako; parrillada eta skate txapelketa.

**ARRATSALDEAN, TXAPELKETA**

Berotze ariketak egin eta tripa asebete ondoren, txapelketa nagusia helduko da; arratsaldeko 16:00etan emango zaio hasiera. Txpelketa Labegaraietako skate gunean jokatuko da. Han dauden moduluez


hau bai
ezkerra
EB
EzkerBatua
Berdeak
ONDO IBILI PAZKOETAN!

SKATE FESTA

gain, skate modulu ezberdinak ere ekarriko dituzte egun horretarako.

Antolatzaile taldekoek esan dutenez, izena egunean eman ahalko da. Parte hartzaile gehienak Bergarakoak eta inguruko herrietakoak izatea espero dute; aldez aurretik, behintzat, ez du skate munduan ezaguna den inork etorriko denik baieztatu.

**500 EURO MATERIALEAN**

Epaile lanean elkarteko lagunak arituko dira. Txapelketa amaitzean, sari banaketa egingo dute; 500 euro banatuko dituzte partehartzaileen artean. Sariak kirol materialean emango dituzte; antolatzaileek, Udalaren, Laino skate dendaren, Giokela elkartearen eta Piorrail enpresaren laguntza izango dute.

**70. HAMARKADAN SORTUA**

Skatea 70. hamarkadan sortutako kirola da; surfa egiten zutenek sortutakoa, hain zuzen. Hala, itsasoan surfik egin ezin zuten egunetan, beste modu batera surfa egiteko aukera zuten.

Taula moztu eta gurpilak jarri zizkioten. Gaur egun, oso hedatua dagoen kirola da skatea; mundu osoan egiten da.

## Bazkaritarako, Giokelakoek parrillada prestatuko dute

## Skate txapelketan 500 euro banatuko dituzte

## Labegaraietan, skate gunean, izango da txapelketa arratsaldean



Labegaraietan dauden moduluez gain, beste hainbat jarriko dituzte txapelketarako. JOXE MARI LARRAÑAGA

## "Alternatiba izan gura dugu; herrian, beste zerbait egiteko aukera eman"




Beñat Luarizaristi, elkarteko presidentea. ARANTZAZU EZKIBEL

**Noiz sortu duzue elkartea?**

Elkartea orain dela bi edo hiru hilabete sortu zen, baina, legalki orain astebete eman digute CIF-a. Hasiera batean, Trukuzikin izena jarri nahi genion elkarteari, baina izen bortitza dela esan digute, eta aldatu egin behar izan dugu. Azkenean, Gurpildun Oholak izena jarri diogu.

**Zein helbururekin sortu duzue elkartea?**

Hainbat helburu ditugu: alde batetik, azpiegiturak hobetu gura ditugu; eta, baita, jaiak eta ikastaroak antolatu ere. Jai hauekin, herritarrek skatea praktikatzeko aukera izatea da helburua.

Bestalde, alternatiba izan gura dugu; herritarrei beste zerbait egiteko aukera eman gura diegu.

**Zenbat lagun bildu zarete elkartean?**

Elkartean 20-30 pertsona gara, denak Bergarakoak. Neska-mutiko txikiak ere badaude, skatea ezagutu eta praktikatu gura dutenak.

Labegaraietan, adibidez, lagun asko elkartzen gara skatean aritzeko; orain, eguraldi onarekin, arratsaldetan, 15 lagun inguru elkartzen gara Labegaraietan.

**Txapelketa ezberdinetan parte hartuko duzue?**

Ez, elkarte bezala ez dugu txapelketetara joateko grinarik. Ez dugu kirol lorpenik egin gura. Gure helburua, ondo pasatzea da; jaiak egin, mutikoekin irteerak antolatu... herrian ez dago ezer, beraz, alternatiba izan gura dugu. Herritik atera eta lagunak egitea ere, bada gure helburua.

**Aurrera begira dituzuen asmoak zeintzuk dira?**

Aurrera begira, ikastaro batzuk antolatu gura ditugu, asmoa hori da, baina, oraindik ez daukagu ezer ziurrik. Lokal bat eskatzea ere pentsatzen dugu, neguan, eguraldi txarra dagoenean,non entrenatu izateko.

Elkarte bezala jasoko ditugun laguntzekin hobekuntzak egitea da gure asmoa.



50 urte baino gehiagoko esperientzia eta profesionaltasuna egunez egun frogatuak.

Iturgintza, gas natural, propano eta butano eta berogailu instalakuntzak.

Sukalde eta bainu berrizketak. Bainuko altzariak.

ITURGINTZA-BEROGAILUAK-GASA
BAINURAKO ALTZARIAK

Larrañaga Eguren, B. M.

Juan XXIII plaza
Tel. eta Faxa: 943 76 11 88
20.570 BERGARA

Jai zoriontsuak izan ditzazuela!

Eraikuntza • Altzariak

MADERAS IPIÑARRI, S.L.

• INSIGNIS pinua zerratu eta lantzen dugu sektore hauendako: altzariak, eraikuntza, aroztegia eta enbalajeak.
• ALERTZEA, DOUGLAS IZEIA, HARITZA eta beste batzuk ondorengo sektoreendako: birgaitzeak, eraikuntza eta aroztegia.

Aroztegia • Enbalajeak
www.euskalnet.net/ipinarri

Ibarra z/g • 184 posta-kutxa
20570 BERGARA

Tel./Faxa: 943 76 15 93
ipinarri@euskalnet.net




BERGARA
Kafea

*Ondo pasau Pazkoetan!*



Kafetegia

**ASTELEHENETIK OSTIRALERA, 06:00etatik ZABALIK**
**ASTEBURUETAN 07:00etatik ZABALIK**

Bidekurutzeta 34, BERGARA 943 76 72 39

MOTOKROSA

# Motor hotsak nagusituko dira bigarrenez zapatuan

**Ehun bat pilotu izango dira proban eta horietako lau bergararrak dira**

Candy ondoko zelaian

**Zapatuan 11:45 eta 19:30**

Euskadiko Open Motokros txapelketarako proba izango da Bergarakoa.

MIRIAN BITERI

**Motorrak gustuko dituztenek hitzordua dute zapatuan, Candy lantegi ondoko zelaian. Euskadiko Motokros txapelketarako proba puntuagarria izango da goizez eta arratsaldez.**

Motor hotsak urte mordoz entzun barik izan ostean, motokross txapelketa antolatu zuten zale bergararrek iaz, Arrasateko Motozale Elkartearen laguntzarekin. Emaitzarekin gustura gelditu ziren eta aurten errepikatzea erabaki dute.

Ehun bat pilotu arituko dira zapatuan Candy lantegiko ondoko zelaian, iaz egin zen toki berean. Aste honetan bertan zirkuitua txukuntzen izan dira, "primeran egoteko eta partehartzaileek min har ez dezaten".

Entrenamenduak 11:45ean hasiko dira. Ondoren lasterketak iritsiko dira. Jubenil, kadete, junior, MX1 eta MX2 senior eta MX1 beteranoen mailetan arituko dira. 50 bat lagunek antolakuntzan parte hartuko dute.

**SARRERAK**

Oraindik zehaztu barik duten arren, sarrera bost eta sei euro artean balioko duela esan dute antolatzaileek. 14 urteko azpikoentzat, berriz, hiru euro.

Mota honetako ekimena prestatzeak 6.000 eta 7.000 euro artean kostatzen duela jakinarazi dute. Udalak 1.000 euro inguruko laguntza eman du. Horren harira, laguntza gutxi dituztela salatu dute.



Euskadiko motokros txapelketa jokatuko da zapatuan. GOIENKARIA

**Mikel Gomez, Asier Blazquez, Josu Mentxaka eta Imanol Zalakain bergararrak izango dira**



Imanol Zalakain.



Asier Blazkez.



Mikel Gomez.



Josu Mentxaka.

Iturkintz Berri S.L.



Bainurako altzarien
salmenta eta instalakuntza
Gas naturalezko, propanozko
eta gasoleozko kalefazioak



Jai zoriontsuak opa dizkizuegu bergarar guztioi!

Amillaga 1 behea • Tel.: 943 76 28 04 • Faxa: 943 76 36 58



NEURRi
JANTZI DENDA ETA OHIALAK

Katabia kalea 2
Tel.: 943 76 34 61
BERGARA

Ondo ibili Pazkoetan!

FUTBOLIN ETA DARDO TXAPELKETA

# Futbolin eta dardo BTLS-7 Opena, lehenengoz

**Izenematea doan da eta nahi duten guztiendako dago zabalik. Sariak ez dira nola-halakoak izango**

Munibe plazan
**Domeka 17:00etan**
16:00etatik 17:00etara zabaldu-ko dute izenematea, Munibe plazan.

MONIKA BELASTEGI

**Futbolin eta dardo txapelketa jokatuko dira aurten Pazkoetan, estreinakoz. Udalak zein BTLSko kideek herritarrak animatu nahi dituzte txapelketan parte hartzera.**

BTLS-7 Opena 17:00etan hasiko da, Munibe plazan. Parte hartu nahi duenak oso erraz dauka, Munibe plazara azaldu baino ez du, 16:00etatik 17:00ak bitartean, orduan izango baita izenematea –ez da ezer ordaindu behar izango–.

Estreinakoz egingo da halako txapelketa eta antolatzaileek herritarrak parte hartzera animatu nahi dituzte, Udaleko zein BTLSko ordezkariek, hain justu ere.

**MUNIBE PLAZAN**

Munibe plazan izango da txapelketa, eta hantxe jarriko dituzte makinak: zortzi edo hamar futbolin eta bost dardo-makina.

Izena ematen duen lagun kopuruaren arabera egingo dute kanporaketa; hau da, jende askok hartzen badu parte, zuzenean kanporaketa egingo dute, bestela, lehenengo ligaska eta gero kanporaketa egingo dute.

**SARI POTOLOAK**

Sari politak egongo dira irabazleendako. Futbolin txapelketaren kasuan, lehenengo sailkatzen den bikoteak txapela eta 300 euro eroango ditu eta bigarren sailkatuak, berriz, 150 euro.

Dardo txapelketaren kasuan, bakarkako sariketa denez, lehenengo sailkatuak txapela eta 150 euro jasoko ditu sari gisa, eta bigarrenak, 75 euro.

Horrekin guztiarekin batera, Udaleko Kultura zerbitzutik jakinarazi dute txapelketa egunean euria egiten badu Munibe plazan izan beharrean udaletxeko arkupeetan jokatuko direla futbolin zein dardo txapelketa.



Futbolinaren kasuan, zortzi edo hamar mahai jarriko dituzte; dardo txapelketarako, berriz, bost. GOIENKARIA

**Estreinakoz egingo da txapelketa hori. Antolatzaileek herritarrak parte hartzera animatzen dituzte**

**Izenematea doan da. 16:00etatik 17:00etara izango da, Munibe plazan**

KI
Kalebarren instalazioak SM
JAI ZORIONTSUAK GUZTIOI!
- Proiektuak
- Instalazioak eta mantenimendua
- Gasa
- Berogailua
- Aire girotua
- Iturgintza lanak
Aurrekotuak konpromesorik gabe
Bidekurutzeta 31 behea
Tel.: 943 76 11 67 BERGARA
E-mail.: kalebarren@inicia.es
Tel.: 943 75 23 07 SORALUZE
944 75 99 60 DEUSTO

BANAKETAK OXIRONDO
Tel.: 943 76 28 81
BERGARA
Espezialitateak:
• Urdaiazpiko iberikoak
• Paletak
• Kordobako urdaiazpikoak
• Solomoak
• Aditiborik gabeko txorizoa (Alejandro)
• Errioxako urdaiazpikoak (Los claveles)
• Erriberako esparragoak
• Pikillo piperrak
• Guardiako Luis Alegre ardoak
Jai zoriontsuak izan ditzazuela!

Mizpildi 8
943 76 12 32
BERGARA

Matxiategi 1
943 76 72 73
BERGARA





MIZPILDI
OKINDEGIA

Jai zoriontsuak guztioi!




Tel.: 943 76 18 05 / Faxa: 943 76 27 43 / 20570 Osintxu-Bergara / industriaszanguitu@stl.logiccontrol.es

UDAL MUSIKA BANDA

# Kontzertu berezia 175. urteurrena ospatzeko

## Miguel Gonzalez Bastidaren abestietan oinarritutako CDa grabatu berri du Bergarako Bandak azken egunotan

Espoloia
**Domekan 12:30etan**
Bergarako Udal Musika Bandak Espoloiko kioskoan egingo du emanaldia.

ARANTZAZU EZKIBEL

**Bergarako Udal Musika Banda 175. urteurrena ospatzen ari da. Hori dela-eta, kontzertu berezia izango da Mendekoste jaietako domekan eskainiko dutena; ospakizun berezia.**

Banda oso momentu onean dago. "Entsegu mordoa ari gara egiten eta oso momentu onean gaude; inoiz baino hobeto, esan badaiteke", adierazi du Gonzalez Chirlaque bandako zuzendariak.

Izan ere, Bergarako banda 175. urteurrena ospatzen ari da eta horren harira, CD bat grabatu dute Miguel Gonzalez Bastidaren zazpi obrarekin. Zortzigarrena, Alfredo Gonzalez Chirlaquek konposatutako *1832* pieza da. Bada, hainbeste entsegu eta gero, sasoi betean dago Bergarako Udal Musika Banda. Mendekoste jaietan, urtero bezala, hitzordu berezia dute herritarrekin. Hala, kontzertu ederra gertatu dute domekarako.

**ERRITMO EZBERDINAK**

"Egun horretarako obra garrantzitsuak aukeratzen ditugu", esan du Chirlaque zuzendariak.

*Campo de Rosas* pasodoblearekin hasiko dute kontzertua. Gero, Mendelssohnen *Athalia* obertura, "obra dotorea, ez azkarra". Euskal soinuak ere entzungo dira, Bastidaren *Ezpata dantza*rekin. Eta bukatzeko, Caballeroren zarzuela eta Jobimen musika alaia. Kontzertua, Chirlaqueren *Bergarako ereserkia*rekin amaituko da.

**Chirlaqueren 'Bergarako ereserkia'-rekin amaituko dute Mendekoste jaietako kontzertua**



Irudian, Bergarako Udal Musika Banda Espoloiko kioskoan kontzertua egiten. GOIENKARIA

### Kontzertuaren egitaraua

| | | |
|---|---|---|
| Campo de rosas | pasodoblea | M. Gz. Bastida |
| Athalia | obertura | F. Mendelssohn |
| Ezpata dantza | | M. Gz. Bastida |
| El duo de la Africana | zarzuelako selekzioa | M. F. Caballero |
| The girls of Jobim | | A. Ch. Jobim |
| Bergarako ereserkia | | A. Gz. Chirlaque |

construcciones Goitu eraikuntzak S.L.
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!
Masterreka 14-16 • Tel.: 943 76 11 23 • Faxa: 943 76 30 41
goitu@grupogoitu.com

YON BILBAO S.M.
Ondo pasa Pazkoa jaietan!
• ERA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK • BERO AKUMULADOREAK • KOMERTZIO ETA ETXEETARAKO MEGAFONIA
• ATEZAIN ELEKTRONIKO ETA BIDEO-ATEZAINAK • SEGURTASUN SISTEMAK • ARGIKUNTZAN ESPEZIALISTAK
ESPERIENTZIA LUZEA
Tailerra eta erakustokia: A. Fleming 11. Tel.: 943 76 28 05 eta faxa: 943 76 05 28 • Etxeko helbidea: Irizar 3. Telefonoa: 943 76 26 32

**ZORIONAK BERGARARROI!**

etxagi

Masterreka 8 Tel.: 943 76 53 12

Ogitartekoak (ogia jartzen diegu)

Platerean (betikoa)

Terrazan jan (euririk ez bada, behintzat)

……………….. Giro ona









**JAIETAKO MENUAK**

**MENU 1**

*Beso-urdaiazpiko iberikoa*
*Gula-entsalada fruitu lehorren ozpin-olioarekin*
*Perretxiko eta ganben voul a venta marisko-saltsarekin*

*Entrekota hornigaiekin edo legatza txefaren olio erretan*

*Limoi-sorbetea cavarekin edo gazta-tarta*

**25 euro.**

**MENU 2**

*Urdaiazpiko iberikoa*
*Perretxiko eta ganben poltsatxoa marisko-saltsarekin*
*Onddo-risottoa gari-esparragoekin*

*Legatz erdia papillotean*
*Txuleta erdia txingarretan erreta*

*Postrea: Etxeko askotariko aukera*

*Ardo ondua*

**35 euro.**

**Maiatzaren 25ean, egubakoitza, MUSIKA ZUZENEAN**

taberna
Tartufo
jatetxea

San Juan auzoa
Tel.: 943 76 35 51

## Gal ezazu ordubete eta egun guztia pasako duzu bere bila.

Richard Wathely



Minutu bat bera ere galdu gabe, gaur egungo sukalde berritzaileenak zure etxeko beharretara egokituta aurkitu nahi badituzu. **Zatoz Bastida Sukaldeak-era.**

Hitzordua eskatzeko aukera eskeintzen dizugu, denbora aurrez dezazun. **8:45etik - 20:30era arteko ordutegi jarraia** benetan axola zaizkizun gauzetarako denbora izan dezazun.

Hitzorduetarako tfnoak.:

**azpeitia 943 150 510**
**zarautz 943 894 999**
**bergara 943 767 058**

www.bastidasukaldeak.com

bastidasukaldeak


GRUPO GEM TALDEA
DONOSTIA
IRUN
LASARTE
PASAIA
EIBAR
ELGOIBAR
ANOETA
GRUPO GEM TALDEA
TOLOSA
BERGARA
BEASAIN
OLABERRIA
ARRASATE
Gipuzkoako kontsezionarioen sare ofiziala
Zabalkunde haundiko enpresa, beti zure ondoan
GIAUTO
OPEL
ELGOIBAR · EIBAR · BERGARA · ARRASATE
OLABERRIA · ANOETA
Tel. 902 345 123 · www.giauto.es
clientes@giauto.es
CHEVROLET
EIBAR · OLABERRIA
Tel. 902 345 225 · www.red-chevrolet.com
clientes@giauto.es
SAAB
BERGARA
Tel. 943 763 347 · www.giauto.redsaab.com
clientes@giauto.es
MENDAUTO
HYUNDAI
ELGOIBAR · DONOSTIA · IRUN · LASARTE
ARRASATE · TOLOSA · BEASAIN
Tel. 902 345 335 · www.mendauto.com
hyundai@mendauto.com
KUAUTO
LANCIA
DONOSTIA · LASARTE · ELGOIBAR
Tel. 902 345 365 · www.kuauto.net
kuauto@kuauto.net
EUSKOAUTO
TOYOTA
PASAIA · ELGOIBAR · BERGARA · OLABERRIA
Tel. 902 245 245 · www.euskoauto.toyota.es
toyota@euskoauto.com